Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

5831

AGINDUA, 2010eko azaroaren 10ekoa, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2011. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko deia egiten diena Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du gazte-politikaren alorrean. Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, «Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzkoak», bestalde, gazteen alorreko ekintza zuzenak garatzeko eskumena, besteak beste, esleitu zien Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei bere 7. artikuluan.

Lege-esparru horretatik abiatuta, eta jardun-arlo horretan inplikaturiko erakundeen eskumenak errespetatuta, Eusko Jaurlaritzak auzolandegiak antolatzeko programa bat kudeatu ohi du Kultura Sailaren bitartez.

Ondorioz,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2011. urteko ediziorako proiektuak aurkezditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei egiten zaien deialdia. Deialdia arautzen duten oinarriak agindu honen eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

3. artikulua.– Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 10a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5831

ORDEN de 10 de noviembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca a entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la presentación de proyectos para el programa «Auzolandegiak» de campos de trabajo de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en 2011.

El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco dispone que corresponde a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de política juvenil. Por su parte, la Ley 27/1983, 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos», en su artículo 7, reservó a las Instituciones Comunes del País Vasco las medidas de acción directa, entre otras, en el ámbito juvenil.

A partir de tal marco normativo y, dentro del respeto a las competencias de las diferentes instituciones implicadas en tal área de actuación, el Gobierno Vasco viene gestionando un programa de campos de trabajo a través del Departamento de Cultura.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Aprobar la convocatoria a entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro para la presentación de proyectos para el programa «Auzolandegiak» de campos de trabajo de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en 2011, que se regirá por las bases contenidas en el anexo de la presente Orden.

Artículo 2.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 3.– Contra la presente Orden de la Consejera de Cultura podrá interponerse, ante el mismo órgano, recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Asimismo, podrá interponerse, directamente, recurso contencioso-administrativo, ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de noviembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN AUZOLANDEGIAK PROGRAMAREN 2011. URTEKO EDIZIORAKO PROIEKTUAK AURKEZ DITZATEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE PUBLIKOEI ETA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDE PRIBATUEI EGITEN ZAIEN DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2011. urteko ediziorako proiektuak aurkez ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei egiten zaien deialdiaren arauak ezartzea.

Bigarrena.– Definizioa.

1.– Hona auzolandegitzat zer hartzen den: hainbat jatorritako gazteek beren borondatez eta eskuzabaltasunez konpromisoa hartzen dute gizarte proiekzioko egitasmo bat eta jarduera osagarriak garatzeko, denbora-tarte jakin batean, eta egitasmo horren bitartez, besteak beste, elkarbizitza, tolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea eta kulturartekotasuna sustatzen dira.

2.– «Auzolandegiak» programarekin elkarlanean jarduteko interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek beren gizarte proiekzioko lan-egitasmoa aurkeztu ahal izango dute.

3.– Ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen indarrez jarritako isunen ondorioz debekua dutenek ere.

Hirugarrena.– Proiektuen tipologia.

1.– Erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek edozein tipologia edo modalitatetako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte, boluntarioek auzolandegietan egin beharreko lan-arloari dagokionez (ingurumena, arkeologia, berreraikitzea, gizarte-lana, antzerkia, artea, ondarea berreskuratzea...).

2.– Erakunde interesatuek kontuan hartu beharko dute auzolandegien xedea dela hainbat jatorri eta kulturatako gazteen arteko elkarbizitza eta kultur trukea bultzatzea, auzolandegia hartuko duen komunitatearen onerako izango den boluntario-lanaren bidez, hau da, programa honetan Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzarekin lankidetzan diharduen komunitate

ANEXO

BASES GENERALES DE LA CONVOCATORIA A ENTIDADES PÚBLICAS Y PRIVADAS SIN ÁNIMO DE LUCRO PARA LA PRESENTACIÓN DE PROYECTOS PARA EL PROGRAMA «AUZOLANDEGIAK» DE CAMPOS DE TRABAJO DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI EN 2011

Primera.– Objeto.

Es objeto de las presentes bases establecer las normas de la convocatoria a entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la presentación de proyectos para el programa «Auzolandegiak» de campos de trabajo de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en 2011.

Segunda.– Definición.

1.– Se entiende por Campo de Trabajo la actividad en la que jóvenes de diferentes procedencias se comprometen, de forma voluntaria y desinteresada, a desarrollar un proyecto de trabajo de proyección social y de actividades complementarias, durante un tiempo determinado, siendo la realización del proyecto un medio para fomentar valores de convivencia, tolerancia, solidaridad, participación, o aprendizaje intercultural, entre otros.

2.– Las entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma de Euskadi interesadas en colaborar en el programa «Auzolandegiak» de campos de trabajo podrán presentar su proyecto de trabajo de proyección social.

3.– Tanto las entidades públicas como privadas sin ánimo de lucro sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo y las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres no podrán concurrir a la convocatoria regulada en esta Orden durante el periodo que establezca la correspondiente sanción.

Tercera.– Tipología de los proyectos.

1.– Las entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro interesadas podrán presentar proyectos de cualquier tipología o modalidad, en cuanto a la temática del trabajo que deban desarrollar los voluntarios en el campo de trabajo (medio ambiente, arqueología, reconstrucción, trabajo social, teatro, arte, recuperación del patrimonio…).

2.– Las entidades interesadas deberán tener en cuenta que el objetivo del programa «Auzolandegiak» de campos de trabajo es facilitar el intercambio cultural y la convivencia entre jóvenes de distintas procedencias y culturas a través del desarrollo de un trabajo de voluntariado que repercuta en el bien de la

edo udalerriaren onerako izango den gizarte proiekzioko lan baten bidez.

Laugarrena.– Proiektuen baldintzak.

Hauek dira proiektuetan kontuan hartuko diren baldintzak:

a) Auzolandegiak, ahal dela, uztail-abuztuan egingo dira. Alabaina, aurreko eta ondoko hiletara ere luzatzea aztertuko du Gazteria Zuzendaritzak, erakunde interesatuek aurkezten dituzten proiektuen eskaintza ikusita. Aldi horren barruan, nahi duten denbora-tarte zehatza aukeratu ahal izango dute erakunde interesatuek auzolandegiak egiteko.

b) Ahal dela, auzolandegiak bi txandatan egingo dira, eta txanda bakoitzak hamabost egun hartuko ditu.

c) Proiektuak planteatzen direnean bermatu beharko da boluntarioek eskaintzen diren txanda guztietan izango dutela lana.

d) Auzolandegietako txanda bakoitza 20 bat gazterentzat antolatuko da.

e) Proiektuak erakundearen onarpena duela egiaztatzeko, erakunde publiko edo pribatuaren organo eskudunak agiri bat aurkeztu beharko du, non proiektua burutzeko konpromisoa eta agindu hau betetzekoa agertuko duen.

f) Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari eranskin honetako 9. oinarrian adierazitako dokumentazioa bidali izana.

Bosgarrena.– Hautaketa Batzordea.

1.– Aurkeztutako eskariak aztertu, balioetsi eta hautatzeko, hautaketa-batzordea osatuko da. Hauek izango dira hautaketa-batzordeko kideak:

– Lehendakaria: Néstor Arana Arabaolaza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzako Gazteriaren eta Gizarte Ekintzaren arduraduna. Ordezkoa: Arantza urizar Sarasua, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzako teknikaria.

– Bokala: Javier Gutiérrez Páramo, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzako teknikaria. Ordezkoa: Agurtzane Iriondo Goti, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzako teknikaria.

– Bokala: Concepción Estíbaliz Alonso Pérez, Gazteria Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzako teknikaria. Ordezkoa: Lourdes Ramírez De Ocáriz, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzako teknikaria.

2.– Eskarien azterketa eta ebazpen-proposamena: hurrengo oinarrian aipatzen diren balorazio-irizpideak kontuan hartuta, Hautaketa Batzordeak ebazpen-

comunidad que acoge el campo, esto es, de la realización de un trabajo con proyección social que revierta en beneficio de la comunidad o municipio que colabora con la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria en este programa.

Cuarta.– Condiciones de los proyectos.

Son condiciones a tener en cuenta en los proyectos las siguientes:

a) Los campos de trabajo se desarrollarán, preferentemente, durante los meses de julio y agosto. No obstante, la Dirección de Juventud podría valorar extender la duración del programa «Auzolandegiak» de campos de trabajo a los meses anteriores y posteriores, dependiendo de la oferta de proyectos recibida por parte de las entidades interesadas. Dentro de este periodo, las entidades interesadas son libres a la hora de plantear la fecha concreta de ejecución del proyecto.

b) Los campos de trabajo se desarrollarán, preferentemente, en dos turnos de quince días cada uno.

c) El proyecto deberá plantearse de tal manera que garantice que las persona voluntarias tengan trabajo en la totalidad de los turnos planteados.

d) Cada turno de campo de trabajo estará dirigido a alrededor de 20 jóvenes.

e) Los proyectos deberán estar aprobados por la entidad mediante un documento emitido por el órgano competente de la entidad pública o privada solicitante, que garantice su compromiso de llevarlo a cabo y de cumplir la presente Orden, en caso de ser admitido.

f) Haber remitido a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco la documentación a que se refiere la base novena de este anexo.

Quinta.– Comisión de Selección.

1.– Para el análisis, evaluación y selección de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Selección compuesta por:

– Presidente: Néstor Arana Arabaolaza, Responsable de Juventud y Acción Comunitaria de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. Suplente: Arantza Urizar Sarasua, técnica de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

– Vocal: Javier Gutiérrez Páramo, técnico de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. Suplente: Leire Azcona Murua, técnica de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

– Vocal: Concepción Estíbaliz Alonso Pérez, técnico de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. Suplente: Lourdes Ramírez De Ocáriz, técnica de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

2.– Análisis de los proyectos y Propuesta de Resolución: la Comisión de Selección, en base a los cri-

proposamena aurkeztuko dio Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariari. Gainera, beharrezko iritzitako argibide eta dokumentazio oro eskatu ahal izango die proiektuak aurkeztutako erakundeei, betiere, aldez aurretik jakinarazita eta 10. oinarrian finkatutako epea emanda. Bestalde, Hautaketa Batzordea proiektua aurkeztutako erakundeekin ados jarri ahalko da aurkeztu dituzten datak aldatzeko, «Auzolandegiak» programaren eskaintza egokitze aldera.

Seigarrena.– Proiektuak balioesteko irizpideak.

Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da, eta, beraz, proiektuak hautatzeko, aurkeztutako guztien arteko alderaketa egingo da, beherago zehaztutako balioespen-irizpideak aintzat hartuta. Gutxienez, sei proiektu hautatuko dira, eta horretarako, beharrezkoa izango da proiektuak gutxienez 40 puntu lortzea. Hona hemen Hautaketa Batzordeak kontuan hartuko dituen balioespen-irizpideak:

a) Proiektuen gizarte-interesa: 40 puntu gehienez.

b) Lana iraunkorra izatea: 40 puntu gehienez.

c) Ostatuko instalazioen baldintzak. Sukalde egokia eta janari-biltegia egotea baloratuko da: 10 puntu gehienez.

d) Eskaintzak Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeen arteko orekari eustea: 5 puntu gehienez.

e) Gai aldetik eskaintza orekatua eta askotarikoa izatea: 5 puntu gehienez.

Zazpigarrena.– Erakundeen konpromisoak.

Hautatutako proiektuak aurkeztu dituzten erakundeek honako prestazio hauek emateko konpromisoa hartuko dute eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak ez die, trukean, inolako diru-ordainketarik egingo:

a) Auzolandegiko lan eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren materialak, bai eta bertako lurra eta instalazioak parte-hartzaileen beharrizanetara egokitzeko beharrezkoak direnak ere.

b) Auzolandegiko lanen zuzendaritza teknikoetarako eta auzolandegiko lanak abian jartzeko beharrezkoak diren langileak, antolatzaileen gidaritzapean. Langile horiek auzolandegia hasi aurretik zuzendaritza eta animazio taldearekin biltzeko modua izan behar dute, udalerri edo komunitatean dauden baliabideak jakinarazteko eta horietarako sarbidea eman eta aldez aurretik programa eta jarduera osagarriak antolatzeko.

c) Parte-hartzaileei ostatu emateko lokal edo insterios de valoración establecidos en la base siguiente, elevará la oportuna propuesta de resolución al Director de Juventud y Acción Comunitaria, pudiendo, a aquellos efectos, requerir a las entidades que presenten los proyectos, previa comunicación a las mismas y otorgamiento de un plazo igual al previsto en la base décima, cuanta información y documentación complementaria se estimen necesarias. Además, la Comisión de Selección podrá acordar con las entidades que han presentado los proyectos la modificación de las fechas propuestas por las mismas, con el fin de adecuar la oferta del programa «Auzolandegiak».

Sexta.– Criterios de valoración de los proyectos.

La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la selección de los proyectos se realizará mediante la comparación entre los mismos, atendiendo a los criterios de valoración fijados a continuación. Deberán seleccionarse un mínimo de seis proyectos, y para ello, deberán obtener una puntuación igual o superior a 40 puntos. Estos son los criterios de valoración que la Comisión de Selección tendrá en cuenta:

a) El interés social de los mismos, hasta 40 puntos.

b) Que el trabajo planteado sea perdurable en el tiempo, hasta 40 puntos.

c) Las condiciones de las instalaciones de alojamiento. Se valorará el que exista una cocina convenientemente instalada y un almacén para los alimentos, hasta 10 puntos.

d) Que contribuya a formar una oferta equilibrada dentro de los tres territorios de la Comunidad Autónoma de Euskadi, hasta 5 puntos.

e) Que contribuya a formar una oferta equilibrada y diversa en cuanto a la temática, hasta 5 puntos.

Séptima.– Compromisos de las entidades.

Las entidades cuyos proyectos sean seleccionados se comprometen a proporcionar, sin contraprestación económica alguna de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, las prestaciones que se indican a continuación:

a) Los materiales necesarios para la realización de las actividades propias de los trabajos a desarrollar en el campo, así como para la adecuación del terreno y las instalaciones a las necesidades de los participantes.

b) El personal necesario para la dirección técnica y puesta en práctica de los trabajos a desarrollar en el campo, bajo las instrucciones del personal organizador. Dicho personal deber tener disponibilidad para reunirse previamente al inicio del campo con el equipo de dirección y animación, y para darle a conocer y facilitarle el acceso a los recursos existentes en el municipio o comunidad para poder organizar de antemano el programa de actividades complementarias.

talazioak, behar bezalako higienea, osasungarritasuna eta segurtasuna bermatuko dituztenak, auzolandegiko lanak egiteko egokiak. Gutxienez, honakoak:

– Bi gune lo egiteko, oheak elkarren gainekoak edo ez.

– Gune bat, auzolandegiko zuzendaritza eta animazio taldearentzat.

– Gune bat, jolas-jarduerak egiteko materiala gordetzeko.

– Dutxak eta komunak, gazteen ostatu-lekuan edo handik gertu.

– Jarduera-areto bat.

– Jangela bat.

Instalazioen deskribapenean zehaztu behar da ea ahalmen urritasunik duten pertsonentzako egokituta dauden ala ez, eta eraikuntza-oztoporik egonez gero, horien zerrenda jaso.

Ahal dela, auzolandegiko taldearentzat bakarrik erreserbatzea ostatu-lekua, auzolandegiak diraun bitartean. Osterantzean, horren berri eman behar zaio lehenbailehen Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egin beharreko jarduera soziokultural edo aisialdikoen jardunaldi bat, gutxienez, ziurtatzen duten elementu material eta pertsonalak.

e) Gazte boluntarioak garraiatzeko modua, lantokia ostatua duten lekutik urruti baldin badago.

f) Beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak, parte-hartzaileek lanean osasun fisikoan eta bizian inolako arriskurik izan ez dezaten.

g) Ostatu-lekuan garbiketa egiteko materiala.

h) Auzolandegia egingo den tokiko eta inguruko kultur alderdiak erakustea, programak bilatzen duen kulturarteko ikasketaren helburua egoki bete dadin.

i) Behin auzolandegia bukatu eta gero, egindako lanaren gaineko dokumentazio grafikoa ere bilduko duen txosten bat aurkeztea.

j) Auzolandegiko parte-hartzaileei hasierako harrera eta bukaerako agurra egitea.

k) Aurrekoak gorabehera, erakundeak komenigarritzat iritzitako beste elementu edo prestakuntza batzuk ere eskaini ahalko ditu, aldez aurretik Eusko Jaurla-

c) Los terrenos o instalaciones para el alojamiento de las personas participantes, en condiciones que garanticen la higiene y salubridad y seguridad, adecuadas a las actividades que se vayan a desarrollar en el correspondiente campo de trabajo y que son, como mínimo:

– Dos estancias para dormir, con literas o sin ellas.

– Una estancia para el alojamiento del equipo de dirección y animación del campo.

– Una estancia para almacenar el material necesario para el desarrollo de actividades lúdicas.

– Duchas y lavabos bien en la instalación donde se alojarán los jóvenes, bien en una instalación cercana a la misma.

– Una sala para realizar actividades y

– Una sala-comedor.

En la descripción de las instalaciones, se debe detallar si son accesibles para personas con discapacidad y enumerar las barreras arquitectónicas, si las hubiese.

Reservar para el grupo del campo de trabajo, en la medida de lo posible, el uso exclusivo de las instalaciones donde se alojen mientras dure el campo. En caso contrario, se debe comunicar con antelación suficiente a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

d) Aquellos elementos materiales y personales que aseguren, al menos, una jornada de actividades socioculturales y/o recreativas, que se deberá desarrollar siempre dentro del territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

e) Transporte de las personas jóvenes voluntarias en el caso de que el lugar de trabajo se encuentre lejos de las instalaciones destinadas al alojamiento.

f) Cuantas medidas de seguridad oportunas sean precisas para garantizar la ejecución de los trabajos sin ningún riesgo para la salud y la integridad física de los participantes.

g) Materiales de limpieza de las instalaciones destinadas al alojamiento.

h) Mostrar las posibilidades culturales que ofrece el entorno en el que se desarrolle en campo de trabajo con el fin de cumplir el objetivo de aprendizaje intercultural que persigue el programa «Auzolandegiak».

i) Una vez finalizado el campo de trabajo, presentar una memoria acompañada de documentación gráfica del trabajo realizado.

j) Recibir y despedir a las personas participantes en el campo de trabajo.

k) Sin perjuicio de lo antedicho, la entidad podrá proporcionar aquellos otros elementos o prestaciones

ritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako arduradun antolatzaileen baimena eskuratu eta gero.

Zortzigarrena.– Proiektuak aurkezteko epea.

1.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko pribatuek agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dute auzolandegi-proiektua.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete bat izango da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak adierazitako tokietan aurkeztu ahalko dira, alegia, besteak beste hauek:

Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza

Donostia kalea 1, O eraikina, 3. solairua

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 95 01 - 945 01 95 36

Bizkaiko Lurralde Zerbitzua

Kale Nagusia, 85

48011 Bilbao

Tel.: 94 403 16 53

Gipuzkoako Lurralde Zerbitzua

Andia kalea, 13

20004 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 02 29 64

Bederatzigarrena.– Aurkeztu beharreko agiriak.

Erakunde interesdunek honako agiriak bidali behar dituzte:

a) Auzolandegiaren proiektu teknikoa, honakoak xehe-xehe jasoko dituena: egin beharreko lanak, lekua eta egunak, eta proiektuaren helburu zehatza ulertzen lagundu dezaketen beste edozein alderdi. Gainera, ostatu-lekuko instalazioen deskribapen zehatza jaso beharko da, eta, hala badagokio, baita sukaldearena eta haren ekipamenduarena ere, eta janari-biltegiarena ere bai. Bai proiektu teknikoaren deskribapena bai instalazioena material grafikoaz lagunduta aurkeztu beharko da.

b) Proiektuak duen interes sozialaren, kulturalaren eta historikoaren justifikazioa.

c) Proiektuak erakundearen onarpena duela egiaztatzeko, erakunde publiko edo pribatuaren organo eskudunak agiri bat aurkeztu beharko du, non proiektua burutzeko konpromisoa eta agindu hau betetzekoa agertuko duen.

que entienda oportunos con la previa autorización de los responsables organizadores de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco.

Octava.– Plazo de presentación de proyectos.

1.– Las entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma de Euskadi que deseen tomar parte en la presente convocatoria, podrán presentar el proyecto de campo de trabajo a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden.

2.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes y se podrán presentar en cualquiera de los lugares que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, entre las que se encuentran las siguientes dependencias del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco:

Dirección de Juventud y Acción Comunitaria

Donostia-San Sebastián 1, edificio O, 3.ª planta

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 95 01 - 945 01 95 36

Servicio Territorial en Bizkaia

Gran Vía, 85

48011 Bilbao

Tel.: 94 403 16 53

Servicio Territorial en Gipuzkoa

Andia kalea, 13

20004 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 02 29 64

Novena.– Documentación a presentar.

Las entidades interesadas remitirán la siguiente documentación:

a) Proyecto técnico del campo de trabajo que contenga una descripción detallada de las tareas a realizar, de su localización y fechas propuestas y de cuantos otros aspectos ayuden a entender el objetivo concreto del proyecto. Asimismo, deberá incluirse una descripción detallada de las instalaciones para el alojamiento y, en su caso, de la cocina y de su equipamiento, así como del almacén de alimentos. Tanto la descripción del proyecto técnico como la de las instalaciones deberá acompañarse de material gráfico.

b) Justificación del interés social, cultural o histórico del proyecto.

c) Documento emitido por el órgano competente de la entidad pública o privada solicitante que avale el proyecto presentado y que garantice su compromiso de llevarlo a cabo y de cumplir la presente Orden, en caso de ser admitido.

d) Auzolandegian egin beharreko jarduera eta proposamen zerrenda, ingurumariak kultura aldetik dituen baliabideak erakusteko.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, erakunde eskatzaileak sexu-bereizkeriaren ondoriozko zigor administratibo edo penalik ez duela egiaztatzen duena.

Hamargarrena.– Akatsak zuzentzea.

Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak proiektua aurkezteko dokumentazioa osatu gabea edo akastuna dela ikusten badu, halako akatsen berri ematen duen jakinarazpena helarazi eta hurrengo egunetik hasita, hamar egun balioduneko epea emango dio proiektua aurkeztu duen erakundeari dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko. Gainera, jakinarazi egingo dio eskatutako dokumentazioa epe horretan aurkezten ez badu, proiektua «Auzolandegiak» programan sartzeko eskabidea ezetsitzat joko dela dagokion ebazpena eman ondoren, edo dagokion izapidea betetzeko eskubidea galduko duela.

Hamaikagarrena.– Ebazpena.

1.– Hautaketa Batzordearen proposamena ikusita, «Auzolandegiak» programarako proiektuen onarpenari buruzko Ebazpena emango du Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariak, hilabeteko epean, proiektuak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

2.– Ebazpena interesa duten erakunde guztiei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Deialdi-aginduaren ebazpena eman ondoren, Kultura Sailak hitzarmen bana sinatuko du 2011ko auzolandegien eskaintzarako onarturiko proiektuak aurkeztu dituzten erakunde publiko eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuekin.

Hamabigarrena.– Jarduera bertan behera uztea.

Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, ikuspuntu teknikoaren aldetik edo egokitasunaren aldetik beharrezkoa dela deritzonean, bertan behera utzi ahal izango du Euskadiko Autonomia Erkidegoan egin beharreko auzolandegi bat. Gertaera horrek ez du zertan ekarri inolako kalte-ordainik proiektua aurkeztu duen erakunde kolaboratzailearentzat.

Hamahirugarrena.– Ekintzak jakinaraztea.

1.– Onartutako proiektuak aurkeztu dituzten erakunde publiko eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek «Auzolandegia» programarekin eta, bereziki, haiekin elkarlanean garatuko den auzolandegiarekin loturiko edozein zabalkunde- edo komunikazio-ekintza egin behar dutenean –zabaltzeko edo komunikatzeko bidea edozein dela ere–, aldez aurretik horren jakitun ipini behar dute Gazteria eta Gizarte Ekintza

d) Relación de actividades y propuestas a llevar a cabo durante el campo de trabajo para mostrar las posibilidades culturales que ofrece el entorno en el que se desarrolle en campo de trabajo.

e) Declaración responsable de no haber sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo.

Décima.– Subsanación de defectos.

En el supuesto de que, analizada la documentación presentada, se observase que ésta es incompleta o defectuosa, se concederá, en su caso, un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la notificación de la comunicación en que se ponga en conocimiento del solicitante los defectos observados, para su subsanación, con la indicación de que, transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que le será notificada, o se le declarará decaído en su derecho al trámite correspondiente.

Undécima.– Resolución.

1.– La resolución de admisión de proyectos para el programa «Auzolandegiak» será dictada, a la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Selección, por el Director de Juventud y Acción Comunitaria en el plazo de un mes a contar desde la finalización del plazo de presentación de los proyectos.

2.– Dicha Resolución se notificará a todas las entidades interesadas, y deberá publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Tras la resolución de la orden de convocatoria, el Departamento de Cultura firmará un convenio con cada una de las entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro cuyos proyectos fueran admitidos en la oferta de campos de trabajo 2011.

Duodécima.– Suspensión de la actividad.

La Dirección de Juventud y Acción Comunitaria podría estimar necesario desde el punto de vista técnico y de oportunidad, y previa Resolución del Director de Juventud y Acción Comunitaria en tal sentido, proceder a la suspensión de la realización de un campo de trabajo a realizar en la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin que este hecho pueda dar lugar a ningún tipo de indemnización a la entidad colaboradora que haya presentado el proyecto.

Decimotercera.– Comunicación de actos.

1.– Las entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro cuyos proyectos sean admitidos deberán comunicar a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria, con carácter previo a su convocatoria o, según el caso, a su celebración, la previsión de realizar cualquier acto, sea cual sea el medio a utilizar, de difusión o comunicación, relacionado con el programa Auzolandegiak y, en concreto, con el campo de

Zuzendaritza, ekintzaren deialdia edo, hala badagokio ekintza bera, burutu baino lehen.

Hamalaugarrena.– Datu-pertsonalen erabilera.

Onartutako proiektuak aurkeztu dituzten erakunde publiko edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek datu pertsonalak babesteko araudian xedatutakoa bete dadila begiratuko dute.

trabajo que se desarrolle en colaboración con dicha entidad.

Decimocuarta.– Tratamiento de datos personales.

Las entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro cuyos proyectos sean admitidos velarán por el cumplimiento de la normativa vigente sobre protección y tratamiento de datos de carácter personal.